


AIA • GETARIA • ORIO • ZARAUTZ • ZUMAIA  KIROL ALDIZKARIA

# sasoiari

2012ko abendua

32. zenbakia

**EMAKUMEAK GIZA PROBETAN**  
Lagun talde baten ahalegina • 6

**KANTAURIKO SURF LIGA**  
Lehiatzeko beste modu bat • 8

**MOBIBIKE ETA UNZUETA KROSA**  
Eskolartekoen parte-hartzea • 10

**Ane Moreno**

**“Eskarmentu handia izanda ere,  
ez dagoen tokitik ez duzu  
arrainik jasoko” • 4**



# Zarauztarren enbata emakumeen indarrarekin

Erredaktorea

Aritz Mutiozabal

Harremanetarako: 607 615 239

e-posta: sasoian@sasoian.info

Argazkiak

Azala: Antonio Moreno.

Sasoian 2.0: Zarautz Arraun Elkarteak.

Beroketa ariketak: Urola Kostako Hitza.

Berriketa: Antonio Moreno.

Kronika: Idoia Etxeberria, Koldo

Alduntzin eta Harria.eu.

Taldeak: Kantauri Surf Liga.

Kirolari gazte: Bittor Mutiozabal,

Baleike.com eta Urola Kostako Hitza.

Hariari tiraka: Baleike.com, Orioko Surf

Taldea, Zarautz Arraun Elkarteak eta

Urola Kostako Hitza.

Erronka: Urola Kostako Hitza.

Diseinua

Roberto Gutierrez

Maketazioa

Saioa Perona

Edukien garapena

Urola Kostako Hedabideak EM

Inprimategia

Gertu

Argitaratzailea

**SASOIAN** aldizkaria **Urola Kostako**

**Udal Elkarteak** argitaratzen du.

Aldizkari honek Aia, Getaria, Orio,

Zarauz eta Zumaiako kirol albisteak

jasotzen ditu.

[www.sasoian.info](http://www.sasoian.info)



**Urola Kostako Udal Elkarteak**

kudeatzen du sasoian.info webgunea.

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta

Zumaiako kirol albisteak, agenda

nahiz emaitzak topatuko dituzu bertan.



**URTEETAKO AMETSA** egia bihurtzeko asmoz, ZAE-Zarauzko Arraun Elkarteak jubencil-senior mailako neska talde bat elkartu du, eta jada buru-belarri entrenatzen hasi dira haiekin, 2013ko traineru denboraldian lehiatu ahal izateko. Dagoeneko 9 neska elkartu dira taldean. Hauek oraindik ikaste prozesuan daudenez, astean hiru egunez ateratzen dira uretara arraun egitera. Entrenatzaile lanetan Jexux Garmendia ari da, Hodei Atzegaren laguntzarekin.

Momentuz elkartu den lagun kopuruarekin trainerua osatzeko motz geratzen denez, beste arraun elkarte batzuekin harremanetan hasi dira Zarauzko elkarte arduradunak; nolabait ere, hitzarmena lortze aldera. Dena dela, kanpora begiratu baino lehen, Zarauzko herrira begiratu nahi du klubak. Hori horrela, ZAEk dei egin die 17 urtetik gorako neskei, arraun egitera anima daitezzen. Arraun elkartean jakin badakite arraunean egin nahiko luketen neska zarauztarrak badirela; batzuk inoiz arraunean egin gabekoak, eta beste batzuk, berriz, noizbait ibilitakoak. Animatzen direnek 636-56 25 90 telefonora deitu dezakete edo [zae001@gmail.com](mailto:zae001@gmail.com) postara idatzi.

Zarauzko taldearekin, eskualdeko arraun elkarte guztiak emakumezkoen trainerua

izango lukete. Ordezkaritza bana, hain justu ere. Getariarrak, oriotarrak eta zumaiarrak izan ziren pausoa ematen lehenak. Indarrak batu zituzten, eta 2005ean Urola Kosta moduan egin zuten debuta Hondarribian, Txingudi Banderan; hirugarren izan ziren Cabo da Cruz eta Hondarribiaren atzetik. 2008an berriz ere elkartu ziren, baina, orduan, Getaria-Zumaiak bezala. Bolada horretan emaitza onak lortu zituzten; besteak beste, Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuten, Euskadiko Txapelketa bigarren izan ziren eta Kontxako Banderan hirugarren sailkatu ziren. Aliantza hura, ordea, desegin egin zen hurrengo denboraldian. 2009an, Zumaiak bere traineru propioa osatu zuen, eta Getaria, berriz, Tolosako taldearekin batu zen. Urte horretan, gainera, Traineru Kluben Elkarteak emakumezkoen Euskotren Liga sortu zuen, eta aipatu bi ordezkariak adiskide izatetik arerio izatera pasa ziren.

Urtebete geroago, Orioko arraun elkarteak eman zuen aurrerapausoa, eta emakumezkoen trainerua atera zuen. Hauek, ordea, maila xumeagoan ari dira, zumaiarrekin eta getariarrekin alderatuta. Orain, badirudi laugarren ontzi bat murgilduko dela saltsan... Zarauztarren enbata emakume izena ere izango du aurrerantzean.

# Errendimendua erritmopean

Gutziz zabaldua dago kirola edo ariketa fisikoa praktikatzerakoan musika entzuteko joera. Izaera motibatzailea du: korrika edo bizikletan dabilen jendeak gora egiten du musikaren laguntzarekin. Ikusi besterik ez dago kiroldegi edo gimnasioetan eskaintzen dituzten aerobik, spinning eta aquagym ikastaroei duten arrakasta; aipatu diziplinak doinu dantzagarrien harian egiten dituzte. Ikerketa ugari egin da entzumenaren eta psikomotrizitatearen arteko loturaren inguruan, baita lotura horren eraginari buruz ere. Eraginkorra izateko, ordea, aukeratutako musikak lau ezaugarri garrantzitsu izan behar ditu: erritmoa, musikalitatea, kultur inpaktua edo gizartean duen oihartzuna eta kirolariarekin izan dezakeen harremana.

Kirola egiteko musika egokia aukeratzeko onura ugari izan ditzake kirolariarengan. Esfortzu fisikoa areagotzen laguntzen du eta errendimendu handiagoa lortzeko balio du, neke eta ezintasun sentipenak murriztuz. Adituek egindako ikerketen arabera, bizikleta egonkorrean entrenamendu saio bat musikaz estimulatuta egi-

nez gero, pedalkadak %11 bizkorragoak izan daitezke. Errendimenduan ez ezik, musikak ariketa fisikoarekin jarraitzea eta sakontzea animatzen gaitu. Izan ere, aldartea eta autoestima goratzen ditu, eta, ondorioz, energia hobeto aprobetxatzen laguntzen du; sufrimendua murriztu eta ariketa fisikoa esfortzu gutxiago erabiliz egiteko lagungarri da, hain zuzen ere.

Ezagun bihurtu diren makina bat abesti daude kirola praktikatzeko. Lasterketetan ohiko bihurtu dira, besteak beste, Survivor taldearen *Eye of the Tiger* (Rocky filmaren soinu banda), Queen laukotearen *We will rock you*, Vangelisek *Carros de fuego* filmerako sortutako pieza edo AC/DC taldearen *Highway to hell*. Gomendio klasiko haez aparte, norberarentzat motibagarriak diren bilduma egitea komeni da. Era berean, minutuko 120 eta 140 kolpeko erritmoa duen musika bada, askoz ere hobea. Egungo musika komertzialaren eta dance estiloko abestien erritmoa da hori, eta horren tenorean egindako ariketa fisikoa eraginkorragoa izaten da. Beraz, hasizure audio erreproduzitzaila prestatzen.

## JARDUERA EZAGUNAK

- **Aerobika.** Musika biziaren erritmoarekin egiten den ariketa fisikoa edo fitnessa. Normalean, *dance* eta *techno* bezalako musika dantzagarriekin. Uneoro, begirale batek gidatzen du saioa.
- **Spinninga.** Bizikleta estatikoarekin egiten den saio aerobikoa, musikaren erritmoa baliatuz.
- **Body Combat.** Aerobikaren antzekoa da, baina honetan borroka arteko ariketak egiten dira musikaz lagunduta.
- **Aquagym.** Aerobikaren uretako aldaera da. Igerilekuan egiten denez, ariketaren efektua bikoituz egiten da.

## MUSIKA ARDATZ DUTEN KIROLAK

- Zenbait kirol diziplina ezin da ulertu muskarik gabe. Teknika handia eskatzen duten kirolak dira; besteak beste, koreografia, koordinazioa, malgutasuna, izaera eta estiloa menderatu behar dira.
- **Igeriketa sinkronizatua.** Ur azpiko balleta ere deitzen zaio. Ur azalean edo azpian koreografiak eginez garatzen da; igerileku azpian bozgoragailuak dituzte. Emakumezkoek zuzenduta dago batez ere
  - **Patinaje artistikoa.** Izotz gaineko partinajea eta dantza uztartzen dituen diziplina da. Ariketa koreografia gisa aurkezten da.
  - **Gimnasia erritmikoa.** Hasieran zuzeneko pianoaren laguntzaz egiten zen, eta gaur egun musika klasikitik modernoagoetara aldatu da. Ariketan sokak, pilotak, uztaiak, mazoak eta zintak erabiltzen dira.
  - **Kapoeira eta gurpil gaineko patinajea.** Bi hauek, gainerako hiru dizplinak ez bezala, ez dira olinpikoak, baina musika dute ardatz.

**Ane Moreno**

Kirol arrantzalea

# «Arrantzan egiteko itsas eremua ongi irakurtzen jakitea komeni da»

**Kirol arrantza ez da diziplina ezaguna, baina azken urteetan ordezkaririk agertzen ari dira; batez ere, Zumaiatik. Ane Morenok, esaterako, Munduko Txapelketa jokatu du urrian.**



**ZUMAIAKO** Anade arrantza eta ehiza elkarteko kide da Ane Moreno (Zumaia, 1994), eta kirol arrantza praktikatzen du. Etxetik datorkio zaleatasuna, eta trebea da kainabera eta, aparejo eta amu artean, arraina harrapatzen. Hori horrela, Arrantzako Munduko Txapelketarako txartela lortu zuen iaz, eta urriaren 13tik 20ra Herbehereetan izan da lehiatzen. Westduin-Wahren hondartza horretarako gune bihurtuta, modalitateko onenen aurka neurtu zituen indarrak. Gorabeherak tarteko, 22. postuarekin konformatu behar izan zuen bakarka. Espainiako selekzioarekin, berriz, bosgarren geratu zen taldeka, domina lortzetik puntu gutxi batzuetara.

**Munduko arrantzale onenen artean lehiatu zara Herbehereetan. Zer nolako esperientzia izan da zuretzat bertan lehiatzea?**

Esperientzia oso polita izan da. Hainbat herrialdetako jendea eza-gutzeko aukera izateaz gain, arrantzan egiteko beste modu eta teknika batzuk ikasteko parada izan dut. Azken finean, taldeka lehiatzerakoan, kide bakoitzak zer arrantzatzen genuen eta nola arrantzatzen genuen jakin behar nuen. Alde horretatik, aberasgarria izan da niretzat.

**Zein helbururekin abiatu zinen txapelketara? Eta gustura al zaude lortutakoarekin?**

Txapelketa irabazteko helburuare-

kin hartu nuen parte, baina baita ondo pasatzeko ere. Egia esan, ez naiz guztiz gustura geratu lortutako emaitzarekin. Nahiago nukeen sailkapenean postu batzuk gorago geratu izan banintz. Egia esan, aurreikuspen handiagoak nituen; izan ere, hasiera nahiko ona eman nion txapelketari, baina tartean arazoak izan nituen.

**Zer gertatu zitzaizun, bada?**

Lehiaketa lau orduko lau txandaz osatuta zegoen, eta txanda guztietako emaitzak hartzen ziren kontuan sailkapen orokorrean. Horrez gain, bost sektoretan banatu gintuzten, eta sektore bakoitzean hamaika arrantzale lehiatzen zen. Lehen txandan nahiko txukun aritu nintzen, nire sektorean



«**Arantza atera ahal izan nuen azken eguneko txandan, nire sektoreko lehen postuan geratuz**»

bosgarren geratuz, eta 19. postuan sailkapen orokorrean. Bigarren txandan, ordea, ez nuen arrainik harrapatu eta azkena izan nintzen. Ondorioz, behea jo nuen, eta oso triste eta gaizki sentitu nintzen. Hirugarrenean, berriz ere, sektoreko bosgarren izan nintzen, eta horrek motibatu egin ninduen, nahiz eta emaitzarekin ez negoen oso kontent. Azken eguneko txandan arantza atera ahal izan nuen, sektoreko lehena izanda eta eguneko sailkapenean laugarren. Azkenean, 55 arrantzaleen artean 22. postuan bukatu nuen txapelketa.

**Bigarren txandako hutsegiteak sentipen gazi-gozoa utzi al zizun?**

Gorabeheratsua izan zen guztia. Bigarren txanda oso txarra izan zen, eta azken eguna, aldiz, primerakoa. Hori horrela, sailkapenean aurrerago bukatu nezakeela uste dut. Nolanahi ere, 55 lagun artean 22. postuan geratu nintzen, eta horrek erditik gora kokatu nintzela esan nahi du. Nire estreinako Munduko Txapelketa izateko ez dago batere gaizki, zalantzarik gabe.

**Selekzioka, aitzitik, domina eskuratzeko atarian geratu zintez.**

Hori da, bai. Bosgarren egin genuen taldeka, hirugarrenarengandik 2 puntura eta bigarrenarengandik hiru puntura. Zorte pixka bat gehiago izan bagenu, dominarekin itzuliko ginatkeen etxera.

**ANE MORENO**

ZUMAIA, 1994



**Txapelketa irabazteko xedez joan zinela onartu duzu, baina esku hutsik itzuli zara. Dominaren bat lortzea aukera erreala al zen, ala ametsa?**

Bakarka, bigarren eguneko emaitza ikusita, ezinezkotzat jotzen nuen. Txanda horretan saio txukunagoa egin izan banu, beharbada motibatua jardungo nukeen hirugarrenean, eta batek daki. Hala ere, lehenengo hiruren artean sailkatzea oso zaila edukiko nukeen.

**Sailkapena osatzeko orduan, zer hartzen du kontuan epaimahaiak? Arrantzatutako arrain kopurua, akaso?**

Harrapatutako arrainaren tamaina baloratzen da batez ere, eta ez arrantzatutakoaren bolumena. Harratatutako arrainak gutxienez 15 zentimetroko luzera eduki behar du puntuatu ahal izateko. Zentimetro adina puntu jasotzen dituzu, eta neurria biribila ez bada, puntu bat gehiago balio du; adibidez, arrainiak 15,1 zentimetro baditu 16 puntu balio du, eta 16,1 zentimetro baditu, 17 puntu. Horrekin batera, kopuru bakoitzari 10 puntu gehiago gehitu behar zaizkio. Beraz, 16 puntuko zazpi pieza harrapatuz gero,

hamasei bider zazpi (142 puntu) gehi 70 puntu (7 pieza x 10 puntu) batu behar dira; 212 puntu, guztira. Garrantzitsuena, berez, zentimetro kopurua izango litzateke; hau da, zenbat eta arrain luzeagoa, orduan eta puntu gehiago. Berdin dio gehiago edo gutxiago pisatzen duten.

**Azken txandakoa izan zen zure saiorik onena. Hor harrapatu al zenuen zure piezarik luzeena?**

Bai, egun horretan 32 zentimetroko platuxa bat harrapatu nuen. Herbehereetan gehienbat arrain planoak zeuden; batik bat, platuxak eta lupiak. Bi horiek arrantzatu nituen, baita bakailo txiki bat ere.

**Kasu hauetan, halako arrantza lehiaketetan, zerk du pisu gehiago; zorteak, ala arrantzale bakoitzak duen teknikak, esperimentziak eta abildadeak?**

Teknika eduki egin behar da. Arrantzan egiten eskarmenturik ez baduzu, eta arrainak non egon daitzken ez badakizu, ez duzu ezertxo ere hartuko. Alferrik ariko zara. Zortea, ordea, guztiz erabakigarria da, baita arrantzan egiteko egokitzen dizuten tokia ere. Arrainak ez dira beti zure postuan ibiliko, batetik

**ANE MORENO Westduin-Wahrein hondartzan, Munduko Txapelketan.**

bestera baizik, eta posible da zure amuari 50 zentimetroko pieza batek kosk egitea. Edo esku hutsik gertatzea. Egokitzen dizuten postua ere zorte kontua izaten da, zozketa bidez zehazten delako. Nik lehen eta azken postu bana lortu nituen, eta horrek ez du esan nahi ona edo txarra naizenik. Edonori gerta dakioke edozer, eta eskarmentu handia izanda ere, ez dagoen tokitik ez duzu ezer jasoko.

**Hala ere, modalitatea ongi menderatu beharko da, ezta?**

Bai, dudarik gabe. Jakin egin behar duzu nola jarri behar duzun kainabera, zer arrantza-aparailu erabili, jarriko diozun beruna nolakoa den eta beste hainbat xehetasun. Horrexegatik, entrenatzeko saio bat izan genuen txapelketako lehen egunean, sailkapeneko puntuaketarako balio ez zuena. Horrek tokian tokiko hondartzak nolakoak diren jakiteko balio du. Topatzen dugun itsasoaren eta korronteen arabera, zer materialekin egin behar dugun arrantzan erabakitzen dugu. Era berean, arrainak nondik dabiltzan ikertzeko balio du, eta sektore bakoitzeko zein postu diren hobekik ikusten ditugu.



**Nola sumatzen duzue postu bat bestea baino hobea den?**

Dunen arabera. Marea bare-bare dagoenean, zuloak non dauden antzematen da, eta sakonera horietan arrainak egoten dira. Beraz, toki horietara bota behar da amua. Sakonera handiko zuloak badaude zure aurrean, postu ona tokatu zaizun seinale da. Nolanahi ere, posible da arrantzan jartzen zaren unean ez egotea arrainik, eta ezer ez harrapatzea. Zorteak zorte, itsas eremua ongi irakurtzen jakitea komeni zaigu kirol arrantzaleoi.

**Entrenamendu libreak txapelketa guztietan izaten al dituzue?**

Ez. Oraingo honetan egin dugu, Munduko Txapelketa zelako. Gainerako txapelketetara itsu-itsuan joaten gara. Iaz, Munduko Txapelketarako sailkatu nintzenean, apenas nekien ezer parte hartu behar nuen hondartzari buruz. Horrelakoetan aldeztatik informatzen saiatzen naiz, zer-nolako eremua eta itsasoa topatuko dudan jakiteko. Gainera, Mediterraneoan arrantzatzeko era oso bestelakoa da gure hondartzetako arrantzarekin konparatuta; itsasaldiak eta korronteak oso kontuan hartu behar dira. Herbeheretako hondartza hemengoaren antzekoa iruditu zitzaidan, Zarauzkoa bezalakoa.

**Entrenamendu pertsonalei dagokienez, astean zehar zenbat denbora eskaintzen diozu zuk arrantzari?**

Gauza bat dela eta bestea dela, ez dut entrenamendu askorik egitean. Zerbait egiten badut, kainabera jaurtitzea baino ez da izaten. Noiz-behinka, aitarekin arrantzan egitera ere joaten naiz, baina oso gutxitan. Udan dezentetan joan naiz, Munduko Txapelketarako prestatzera. Astean zehar, ordea, ez dut aparteko ezer egiten. Orain Leonen ikasten ari naizela, are gutxiago.

**Arrantza askotan aisialdiarekin lotzen da. Kirol lehiakor bezala oraindik ezezagun samarra dela us-te al duzu?**

Bai, askorentzat kirol ezezaguna da. Jendeari arrantzako Munduko

**Kirol Arrantza**

## **Hasieratik goi-mailan**

**ZALETASUN GOIZTIARRA.** «Aitarekin eta anaiarekin Anade elkarteak antolatzen zituen lehiaketetara joaten hasi nintzen. 2005ean, aitak Euskadiko Txapelketara eraman ninduen, modalitatea probatu nezan, eta, harrezkero, hementxe jarraitzen dut».

**ELITEAN.** «11 urte nituenetik Espainiako onenen artean aritu naiz lehian. Emaizta onak hasieratik etorri ziren, eta oso erregularra izan naiz beti; izan ere, 2005etik goi-mailan lehiatzen jarraitu dut. 16 urte bete arte 16 urtez azpiko mailan aritu nintzen; ondoren, urtebetez, 21 urtez azpikoen mailan; eta, iaz, Damas maila pasatu eta Munduko Txapelketarako txartela lortu nuen».

**ETORKIZUNEAN.** «Aurrerantzean ez dakit nola joango zaizkidan gauzak. Ikasketetan buru-belarri nabil, Leonen, eta arrantzarako denbora gehiegirik ez dut. Etxetik eta itsasotik hurrin nago, eta atzerantz egiteko arriskua ikusten dut. Edonola ere, ezin dut aurreikusi ezer oraindik». Aitortu duenez, datorren urteko Munduko Txapelketara joateko aukerak izan ditzake kirol arrantzale zumaiaarrak. Erabakia, ordea, Espainiako Arrantza Federazioaren esku dago.



«**Harrapatutako arrainaren tamaina baloratzen da batez ere, eta ez arrantzatutako piezaren bolumena**»

Txapelketara nindoala esaten nio-  
nean, harrituta geratzen ziren. Ez  
zekiten arrantzan horren maila han-  
diko txapelketak jokatzen zirenik.  
Arraro samarra egin zitzaion bati  
baino gehiagori. Egia esan, ez dago  
futbola edo eskubaloia bezain bar-  
neratuta gizartean.

**Eta, hala ere, Anade elkarteko arrantzaleak bolada onean zabilta-  
te. Julen Espilla txapeldunorde izan  
zen 2009an, eta Xabier Lopez tx-**

**peldun, 2010ean. Zumaian arrantza-  
le harrobi ona dagoen seinale?**

Bada, ez dakit. Hiruok betidanik  
ibili gara arrantzan, eta pentsatu na-  
hi dut horrek eragina izango duela.  
Zortea ere eduki dugu, jende asko  
atzean geratu baita. Dena den, ez  
dut uste kasualitatea izan denik  
Munduko Txapelketara iristea. Txi-  
kitatik jardun dugu arrantzan, beste  
batzuek beste kirol batzuetan aritu  
diren bezala, eta gauzak ondo egin  
ditugulako ailegatu gara honaino.



**Herri-kirol gehienak bezalaxe, giza-probak ere gizonezkoen eremua izan dira. Azkenaldian izaten ari den susperraldiak, ordea, emakumeak erakarri ditu. Hori horrela, nesken taldea sortu dute eskualdean.**

# Emakumeak ere tiratzen

**GIZA PROBA** modalitate oso maskulinoa izan da historikoki. Gizonezkoen norgehiagoka, hain zuzen. Azken urteetan puri-purian jarri dira tokian tokiko zortzikoteen arteko erakustaldiak, txapelketak eta apustuak. Ikusmin horrek gizonezkoak ez ezik, emakumezkoak ere animatu ditu probalekuetara. Orain, ordea, ikusle huts izateari utzi eta harrizarrari tiraka aritzeko gai direla ere erakusten hasi dira. Eskualdeko neska koadrila batek horretarako kasta duela eta, taldea osatu du.

Antza denez, Zarautzen parranda giroan zebiltzala sortu zen emakumezkoen giza proba taldea sortzeko ideia. «Udan harri-jasotzen erakustaldi asko izan dut, eta gauze ibiltzeko aukera gehiegirik ez dut izan. Hala ere, goiz batean anaiak komentatu zidan Aiako neska koadrila batek desafia botu zuela aurreko

gauean parrandan zela. Gainera, ni ere tartean izango nintzatekeela ere aipatu omen zuten. Hortik taldetxoak elkartu, eta zortzikoa osatzeko jende bila aritu ginen», azaldu du Idoia Etxeberria harri-jasotzaile oriotarrak. Herri ezberdinetakoak badira ere, Orion entrenatzen dute, Anibarko Portua eta Ortaika arteko biribilgune ondoko lursail batean; Orioko Heldu! gizonezkoen giza proba taldea prestatzen den toki berean.

Udan hainbat erakustaldi eman badute ere, taldea oraindik hasiberria da, eta egonkortzen ari da. Zortzi kidez osatuta dago –probarako behar adina tiratzaile kopuruarekin, justu-justu–, baina edozein ezustekorekin hanka motz geratzeko arriskua dutela adierazi dute. Neska koadrilak izan du laguntza giza-proba munduan murgiltzerakoan; izan ere, Imanol Etxeberria dute botilleroa,

Heldu! taldearen prestaketaz arduratzen dena.

Hain zuzen ere, Heldu! giza proba taldeko zortzikoaren aurka jokatu zuen Orion lehen norgehiagoka: «Lehenengo erronka txapeldunen aurka egin genuen. Jaialdi ederra izan zen, giro paregabea izan genuen, eta oriotarrek ere harrera beroa egin ziguten». Desafio horretatik giza-proba taldearekin jarraitzeko harra piztu zitzaion neskei, eta, harrezkero, hainbat erakuskaldi egin dute. «Gure moduko emakumezkoen giza-proba talderik apenas dago Euskal Herrian (beraiekin batera, Berrobiko taldea baino ez dago). Horregatik, erronkak beharrezko erakustaldiak egiten ditugu nagusiki. Jokatu izan dugu desafioren bat gizonezko laukote baten aurka edo zaldi baten kontra, baina gehienetan erakustaldia egiteko hots egiten



**EMAKUMEEN  
GIZA-PROBA**  
taldeko zortzi  
partaideak,  
harriari tiraka,  
erakustaldi  
batean.

Peak  
aile

## Faborito izatetik, hirugarren postuarekin konformatzera

Orioko Heldu! taldeak hirugarren postuarekin konformatu behar izan du Taldekako Gipuzkoako Giza Proba Txapelketan. Zizurkilgo probalekuan jokatu zuten norgehiagoka, urriaren 14an, eta oriotarrekin batera, beste hiru talde lehiatu ziren: Berrobi, Aiztondo eta Urretxu, alegia. Azkenean, Berrobiko taldeak jantzi zuen txapela. Bi taldeko bi txanda-



tan aritu ziren lanean, 950 kiloko harriari tiraka. Lehenengoan txapeldunak eta txapeldunordeak izan ziren aurrez aurre; Berrobi eta Urretxu, hurrenez hurren. Lanean jardun zuten ordu erdian ez zuten euririk egin, eta trabarik gabe egin zuten beren lana, zola bustia egon arren. Bigarren txandan, berriz, iazko txapeldunak eta txapeldunordeak jardun zuten; hots, Heldu!-k eta Aiztondok. Euria egin zuen txanda horretan, eta zikindu eta lokaztu egin zen zola hein handi batean. Ondorioz, gehiago kosta zitzaizen harria mugiaraztea, eta hirugarren eta laugarren postuarekin konformatu behar izan zuten. Berrobik 81 plaza, 8 zinta eta 2,35 metro egin zituen; Urretxuk 81 plaza, 4 zinta eta 0,63 metro; Heldu!-k 79 plaza, 3 zinta eta 2,82 metro; eta Aiztondok 73 plaza, 4 zinta eta 0,68 metro. Orioko Heldu!-k 11,2 kiloko gainzama erabili zuen, eta gainerako hiru taldeak gainzamarik gabe aritu ziren.

digute herrietatik», zehaztu du Etxeberriak.

Herrian ere «oso ondo hartu» dituztela dio: «Egiten dugun esfortzua kontuan hartu digute, eta hori pozgarria da guretzat». Azken urteetan giza-probak izan duen susperraldia dela eta, «emakumezkoen taldea sortzeak ez ditu herritarrak harritu; beste urrats bat izan da ibilbide horretan». Askotan indarra izan da herri-kirol modalitate hau gizonezkoekin erlazionatzeko faktorea. Dena dela, jende gehienak kontrako uste badu ere, erresistentzia da gakoa: «Indarra beharrezkoa da, baina erresistentzia da garrantzitsuen», azaldu dute giza-probako kideek. 650 kiloko hormigoizko harria erabiltzen dute entrenatzeko, eta horri 20 minutuz tiraka jarduteko ezinbestekoak dira bi gaitasunak edukitzea.

## Marka hausteko abildadea

Donostia Kulturaren barruan, harri-jasotzearen inguruko *Harria* liburuari aurkeztu zuten urria bukaeran San Telmo Museoa. Horren harira, eta liburuari bultzada emateko, herri-kirol jaialdia antolatuta zuten, eta Idoia Etxeberria harri-jasotzaile oriotarrak errekor berria jarri zuen. Erakustaldian, 150 kiloko harri lauki-zuzena jaso zuen. Ordura arte, Etxeberriak bizkarrera jasotako harri handiena 140 kilokoa zen. Harri hori jaso duen lehen emakumea izateaz gain, ez zegoen inor marka hori gainditu zuenik. Bost minutuan 150 kiloko harria behin altxatzea zuen erronka, baina oriotarrak lau aldiz altxatu zuen. Hala, urte zailari aurre egin eta zapore ezia jarri dio; izan ere, urtebete pasatu du harririk jaso gabe, gimnasia entrenatzen, bizkarreko arazoengatik.



# Surfaren berezko izaerarekin bat eginik

**Bigarren urtez, Kantauri Surf Liga antolatu dute, eskualdeko taldeen parte-hartzearekin. Aniztasuna eta berdintasuna sustatzen duen txapelketa eredu berritzailea da.**

**Euskal kostalde osoko** surfleriak biltzea du helburu Kantauri Surf Ligak. Txapelketa eredu berritzailea aurkeztu zuten iaz, eta eredu berari jarraipena emanez itzuli da. «Egungo txapelketek surfleriengan erakargarritasun handirik ez zutela ikusten genuen. Askotan babesleak lortzeko edo sari ekonomikoengatik hartzen zuten parte; gustuz baino gehiago, obligazioz lehiatzen dira asko», nabarmendu du Ligako antolakuntzako kide Oier

Illarramendi zarauztarrak. Horrekin batera, txapelketetako ohiko funtzionamenduarekin aspertuta daude: «Kanporaketa bidezko formatua izanik, surfleri onek aurrera egiten dute eta horren ongi aritzen ez direnak lehenengo txandan kaleratzen dira. Horrek atsekabe handia sortzen du. Gainera, oso indibidualizatuta dago guztia, eta, egia esan, bakarkako kirola da, baina taldekako zerbait egitea bururatu zitzaigun, guztiei aukera emateko».

Beraz, garailea egun bakarreko txapelketa batean erabaki beharrean, hainbat jardunaldi izango dituen liga jokatzeko ari dira, astero-astero. Ligak ez du surfleri indibidual bat izango garaile; taldekako lehia izanik, taldea izango da txapelduna. «Surfa bakar-kako praktika da, baina askotan lagunekin joaten gara; batez ere, kanpora joaten garenean. Surfa egiteko elkar-

tzen diren taldeak badirenez, gure asmoa talde horiek antolatzea eta harremanetan jartzea da. Giroa sortzeko, azken finean».

## Hiru ligaxkatan

Urriari hasi ziren txapelketarekin, eta abenduaren erdialdean bukatuko dute. Aurten, lehiaren dinamika berritu egin dute: lehenik eta behin, sailkapen ligaxka jokatzeko ari dira, hiru zonaldeetan banatuta (hegoaldea, erdialdea eta iparraldea), eta ondoren, finaleko ligaxka jokatu dute. Aurten hamaika taldek eman dute izena: erdialdetik, Gipuzkoako Baga-Zarauzko Surf Eskola, Lonjan Fet. 4Per4, Zarauzko Surf Elkarteak, Pukas Surf Elkarteak eta Gaztetape Surf Elkarteak (nahiz eta azken biak atzera bota diren); hegoaldeko Bizkaiako Bakio Surf Taldea, Getxo Surf Taldea eta Peña Txuri Surf Tal-





deak; eta iparraldetik, Lapurdiko Anglet Surf Club, Artha Surf Club eta Bidarteko Surf Club.

Zonalde bakoitzeko bi talde onek azken ligaxka bat jokatu dute, talde irabazlea erabakitzeko; abendu-ko lehen hiru asteburuetan izango da, eta jardunaldi bakoitzean bi saio egingo dituzte. «Garraioa oso garesti ateratzen zen talde askorentzat, eta Ipar Euskal Herrira edo Gipuzkoara behin baino gehiagotan mugitzea ez zen batere bideragarria irteten ekonomikoki. Hori ikusirik, hasieran herrialdeka antolatzea erabaki dugu. Aldaketa honekin, gainera, talde gehiagok parte hartu ahal izan du aurren», zehaztu du Illarramendik.

Irabazleek, printzipioz, ez lukete sari ekonomikorik jasoko. Kantauriko Surf Ligak oraingo ez du babeslerik, eta izen-ematearekin lortzen duten diruarekin eta Euskal Herria Kirola erakundearen diru laguntzarekin osatzen dute aurrekontua. Eta zenbateko hori txapelketa antolatzera bideratzen dute. Ondorioz, dominak eta garaikurrak baino ez dituzte banatu. «Datozen urteetan babeslerik edo erakunde publikoen diru-laguntzarik jasoz gero, saiaturko ginateke talde guztien artean banatzen; batik bat, garraioa eta desplazamenduak ordaintzeko. Momentuz, lortzen duguna gastuetarako izaten da», dio antolatzaileak.

### Puntuazio orekatua

Talde bakoitzetik sei surflari uretaratzen dira jardunaldi bakoitzean, eta ordu eta erdiko saioa jokatzeko: «Ohiko txapelketetan 15-20 minutu inguruko txandak egiten dituzte, eta gu surfa egitera uretaratzen garenean, gutxienez ordubete aritzen gara. Orduan, gure eguneroko praktikaren antza gehiago zuen lehia bat egin nahi genuen». Hiru maila zehaztu dituzte –open mailakoa (gizonezko helduak), 18 urtez azpikoa (gazteak) eta emakumezkoa–, baina berdintasuna eta aniztasuna sustatze aldera, guztiak elkarrekin lehiatzen dira une berean.

Puntuazio sistemari dagokionez,

## Jardunaldiak surf taldeek proposatutako guneetan jokatzeko ari dira; besteak beste, Zarauzko Borghetto, Marina Txiki eta Gurutze Gorria daude eskualdean.

hainbat aldaketa egin dute iaztik hona. Taldeko kide guztiek kategoria jakin batekoak izan daitezke, edo nahastuak. Orduan, taldeen aniztasuna eta berdintasuna hori indartzeko, puntuazio bereziak jarri dituzte indarrean: kategoria bereko bikote bat badago, olatu bikoitza hartzeko aukera dago. Hobari moduko zerbait da, baina ezin da pilatu; adibidez, talde osoa open mailakoekin osatzen badute, olatu bikoitza hartzeko aukera bakarra izango dute, eta beste horrenbeste gainerako mailakoekin. «Orduan, gure ustez ideala open, gazte eta emakumezko mailako bina lagunez osatutako taldea litzateke. Hala, hiru olatu bikoitz hartzeko aukera izango luke». Antolatzailearen esanetan, neskak edo gazteak «kikildu» egiten dira maiz gizonezko helduen aurka. Eta bi maila horien parte-hartzea sustatzeko sortu dute olatu bikoitzaren aukera.

Era berean, puntuazio sistema hobeto definitu dute, hasierako irizpideak zalantzak sortzen zituelako.



Puntuazioa 1etik 5era litzateke, baina emakumezkoek eta gazteek hartutako olatuak malgutasun gehiagorekin epaitzen dituzte. «Openekoek 5 puntu lortzeko, maila bereziko maniobra bat eta maila altuko maniobra bat egin behar dute; emakumezkoetan, berriz, nahikoa da maila altuko bi maniobra egitea 5 puntu eskuratzeko».

### Talde gehiagorengana

Kantauri Surf Ligaren bigarren urtea indarberrituta heldu da kostaldera. Iaz sei taldek hartu bazuten parte, aurren 11 taldek eman dute izena, nahiz eta horietatik bik atzera egin duten azken unean. «Udan elkartzeko elkarte eta talde talde deika aritu ginen, liga aurkeztuz, eta, egia esan, ahaleginak emaitza onak eman ditu». Datozen urteetan ere formatua eraiki eta ezagutarazi nahi dute antolatzaileak: «Taldea ezberdinekin elkartzeko, proiektua erakutsi eta beraiek ere barneratu dezatela».

Abiatu duten txapelketa eredu hasiberria da, eta urtez urte zorrozten eta finkatzen joango dira, betiere hobetzeko. Lehen pausoak eman dituzte, eta pixkanaka-pixkanaka liga handitzen joatea gustatuko litzaieke. «Hori horrela gertatuko balitz, proposatzen duguna gustuko dela esan nahiko luke, baita lana ongi egiten ari garela ere». Kantauriko Surf Ligaren helburua egungo txapelketen alternatiba izatea da, talde izaera bultzatuz, surflari mota gehiagorengana iristeko.

# Irribarrea botika eraginkorrena

**Aspanogi elkarteak antolatuta, IV. Mobibike Eguna ospatu zuten urria bukaeran. Urtero bezala, bizikleta itzulia, triatloi txikia, pailazoak eta txirrindulari**

**profesionalak izan ziren.**

**IRRIBARREA** eta elkartasuna. Horiek izan ziren Mobibike Eguneko bi ardatz nagusiak: alde batetik, urtean zehar gaizki pasa dutenei egun zoriontsua eskaintzea, eta, bestetik, berriz, Aspanogi-Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteari babesa ematea. Aurten, laugarren urtez jarraian, Zarautzen ospatu zuten festa handia, azaroaren 28an. Urtero bezala, bizikletaren inguruan egin zuten jai, baina hainbat bidelagun ezagunekin; besteak beste, Pirritx, Porrortx eta

Marimotots pailazoekin eta Markel Irizar eta Haimar Zubeldia txirrindulari profesionalekin.

Ekitaldiz beteriko egitarau zabala prestatu zuten antolatzaileek egun handirako, Aritzbatalde kiroldegi inguruan. Goizean, mendiko bizikletekin trabesia egin zuten, Pagoeta elkartearen BTT taldearen laguntzarekin. Jarraian, triatloi txikia egin zuten, eskolarteko neska-mutilentzat. Goiza biribiltzeko, txirrindulari profesionalekin eta pailazoekin, herrian zehar bizikleta itzulia eman zuten, eta, aldi berean, umeentzako hainbat joko eta zirkuitu jarri zituzten.





DATUA

50

Ohitura den bezala, aurten ere atletismoarekin lotutako herritarrek omendutuzte Zumaiako Zakila Bira lasterketan. Aurten, Jose Mari Alkorta eta Juan Mari Larrañaga atleta ohiekin batera, Club Atlético Zumaiako elkarteari egin diote gorazarre. Izan ere, 50 urte bete dira senior mailan Gipuzkoako Atletismo Txapelketa irabazi zutela. Zumaiako gazte koadrila batek ahoa bete hartz utzi zituen gipuzkoarrak. Entrenatzeko apenas baliabiderik gabe, bi urtez jarraian aipatutako txapelketa irabazi zuten; hau da, 1961n eta 1962an.



BA AL DAKIZU...

## Nortzuk irabazi duten aurtengo Zakila Bira?

Hicham El Amrani marokoarrak irabazi zuen gizonezkoetan, marka berria jarritz (1:03:14). Emakumezkoetan, berriz, Cristina Loeda izan zen garaile (1:22:28). Zumaiarren artean, Andoni Agirre eta Leire Atxutegi izan ziren azkarrenak. Korrikalarien aurretik, patinatzaileen lasterketa jokatu zen. Oikiara arte erakustaldia egin ostean, Nicolas Alonso iritsi zen lehen postuan (51:07).

## Hitzordu klasiko bat, Isidoro Unzuetaoren oroimenez

Zarautz

**Zarauzko ikastetxeetako ordezkakiez gain, Goierriko, Irungo, Elgoibarko eta Hernaniko neska-mutilek hartu zuten parte lasterketan.**

### Zarautz Kirol Elkarteko

Atletismo atalak antolatuta, 43. Isidoro Unzueta Saria-12. Oroimenezko Lasterketa jokatu zuten azaroako lehen igandean. Azken urteetan bezalaxe, Abendaño industrialdeko belarretan atondu zuten lasterketaren zirkuitua. Kategoriararen arabera distantzia osatu behar izan zuten korrikalari hasiberriek: benjamin neskek eta mutilek, 720 metro; alebin neskek eta mutilek, 1.220 metro; infantil neskek, 1.440 metro eta infantil mutilek, 1.940 metro. Zarauzko ikastetxeetako ordezkarien gain, Goierriko, Irungo, Elgoibarko eta Hernaniko neska-mutilek ere hartu zuten parte. Unzueta zenaren familiakoak han izan ziren laguntzen eta sariak banatzen.



## HARIARI TIRAKA

Zumaia Bodyboarda

# Etxekoak etxean bezala

**PIERRE LOUIS COSTES** munduko txapeldunak irabazi zuen Bodyboard Zumaia Pro 2012 txapelketa. Europako zirkuituko proba bat Zumaian jokatzeko estreinako aldia zen, eta herriko bodyboard ordezkariak ez zuten hutsik egin: Alex Uranga eta Alex Odriozola bigarren eta hirugarren sailkatu ziren, hurrenez hurren. Hugo Pinheiro portugaldarrak osatu zuen lauko finala. Txapelketa Itzurungo hondartzan jokatu zen, urriaren 26tik 28ra bitartean.

Ikusmin handia bazegoen ere, finala bera ez da espero bezain lehiatua izan. Olatuak ez ziren hain egokiak eta, une erabakigarrian, Costesek agerian utzi zuen zergatik den munduko onena. Aurkariak konturatzerako goi mailako bi puntuazio lortu zituen, saioa ia erabakita utziz. Odriozola eta Uranga gogotik saiatu ziren arren, ezin izan zuten puntuazio alturik lortu eta, hala, txapela borrokatu.



Horrenbestez, Costesek aise irabazi zuen lehia. Txapeldunak antolatzaileek egindako ahalegina eskertzeaz gain, European dagoen maila azpimarratu du.

Astebete lehenago, Eroski Bidaiak Euskal Bodyboard Zirkuituaren hirugarren eta azken proba jokatu

**BODYBOARD ZUMAIA PRO txapelketako garaileak podio gainean.**

zuten eszenatoki berean. Kasu horretan, Alex Odriozola jaun eta jabe izan zen 18 urtez azpikoen mailan eta open mailan. Edonola ere, zirkuituko sailkapen orokorreko hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuen zumaiarrak, 18 urtez azpikoen kategorian.

Orio Surfa

## Itsasaldia lagun

**DOMU SANTU EGUNEKO** zurbia baliatuz, Orioko Surf Txapelketa jokatu zuten azaroaren 1ean eta 2an. Ostegun goizean olatu txikiak zeudela eta, 16 urtez azpikoen txandak egiteko aprobetxatu zuten, baita bodyboardenak ere. Eguerdi aldera, ekaitza medio, guttiz nahastu zen itsasoa, eta bertan behera utzi zuten norgehiagoka. Ostiralean heldu zieten berriz lehiari. Antolatzaileek diote «aparteko zortea» izan zutela itsasdiarekin. Bi metroko olatuak

izan zituzten surfariak gozagarri, hego haizeaz lagunduta, egun osoan. Ondorioz, nagusien txandak egin zituzten ia egun osoan.

Open mailan, Xanti Martinez izan zen garaile; emakumezkoetan, Sonia Ziani; 16 urtez azpikoetan, Lander Zumeta; bodyboard diziplinan, Mikel Elustondo; eta tabloian, azkenik, Fermin Lazkano. Ezbehar bat ere izan zen: Andoni Fernandez Ostolazak zauria egin zuen izterrearen atzealdean, taularen bi kilekin.





# Kirol AGENDA



## Zarauzko 34. Bikote Mistoek Krosa

Zarautz Kirol Elkarteko atletismo atalak antolatuta, abenduaren 2an jokatuko da Zarauzko 34. Bikote Mistoek Krosa. Irteera Aritzatalde kiroldegitik izango da, eta 7,5 kilometroko ibilbidea osatu ondoren, Musika Plazan helmugaratuko dira. Izenemateak kostua 20 euro izango da bikoteko, eta *Herrikrossa.com* webgunean eta Helmuga Kirolak dendan egin daitezke. Gehienez ere, 500 bikote onartuko dituzte proban. Aurten, estreinakoz, txip bidez kontrolatuko dute denbora eta sailkapena.

## Orioko II. Herri Lasterketa

**Noiz:** Lasterketa abenduaren 16an, igandean, jokatuko da. Irteera 11:00etan egingo dute.

**Distantziak:** Ibilbide luzea (14 kilometro) eta motza (7 kilometro) egiteko aukera. Lasterketa motza ibai-ondoko ibilbideari itzuli bat izango da; eta lasterketa luzea, berriz, bi itzuli.

**Antolatzailea:** Orioko Herri Ikastola.

**Izenematea:** *Herrikrossa.com* webgunean eman behar da izena aurretik, 12 euro ordainduta. gehienez ere, 400 korrikalarientzat egongo da tokia.

**Informazio gehiago:** <https://sites.google.com/site/oriokoherrilasterketa>.



## Iñaki Mendizabal, 'Enbata'-ren entrenatzaile

Hegoi Intxausperen hutsunea betetzera dator Iñaki Mendizabal Zarauzko Arraun Elkartera. Bera izango da datorren hiru denboraldietan Enbata traineruaren entrenatzailea. Helburuak argi eta garbi finkatu ditu, gainera: KAE-1 ligako goiko postuetan kokatu nahi du taldea.

## Aia Herri Kirola Kintopekoetan



**SANTU GUZTIEN EGUNAREKIN** bat egin zuten zubi luzeak inoiz baino ikusle gehiago bildu zuten Aiako XI. Kintopeko Idi Probetan. Sei eguneko txapelketaren ondoren, azken egunean parte hartu zuten Patxi Irarreta errentariarak lortu zuten garaipena. Bigarren izan zen Iñaki Oliden oriotarra, Enaitz Olidenen omenezko idi parearekin, eta hirugarren postua Zubiondo Jatetxeko idi-parearentzat izan zen.



## ERRONKA

# Herritarren 'platanitoo'



**'Jarri zure izena platanito gorrian. Ni ere Telmo Deunekin' kanpaina jarri du abian Zumaiako Arraun Elkarteak. Modu horretan, eta dirulaguntza baten truke, zaleek beren izena jarri ahal izango dute traineru berrian.**

**ARRAUN ELKARTEAK** hasi dira jada datorren denboraldiari begira: pixkanaka-pixkanaka berriz ere entrenatzen, arraunlarien joan-etorriak adosten eta babesleekin akordioak bilatzen, besteak beste. Ohiko kudeaketa eta jarduera horiekin batera, ezohiko kutsua duen ekimena abiarazi du Zumaiako Arraun Elkarteak. Gorriek traineru berria izango dute datorren denboraldian, uda honetan hain ezagun egin den *platanitoo* deritzan ontzia. Horrekin lotuta, Zumaiako zuzendaritza batzordeak nahi duenari bere izena, ezizena, koadrilarena edo enpresarena traineruan jartzeko aukera emango dio. Horretarako, kanpaina jarri du klubak martxan

**TELMO DEUN** ontzi berriak norbere izena, koadrilarena, dendarena edo enpresarena eramango du.

*Jarri zure izena platanito gorrian. Ni ere Telmo Deunekin izenburupean.*

Bi neurri eskaintzen ari dira izena jartzeko: bata, nortasun agiriaren tamainakoa, 100 euro balio duena, eta, bestea, tamaina horren erdia, 50 eurotan. Klubak bereizi egin ditu tarifak: koadrilla, elkarte, denda edo enpresak izena traineruan jarri nahi izanez gero, 100 euro ordaindu beharko du; aldiz, bakarkakoa bada izena jarri nahi duena, 50 euro. Kanpanarekin bat egiten dutenek Errenta Aitorpenean onurak izango ditu, %30eko kenkaria edukiko duelako Ogasunarekin urtero egin beharreko hitzordu horretan.

Zumaiako hainbat lekutan jarri dituzte paperak, datuak betetzeko:

Ernio, Ttakun, Maluta, Algorri, Kresala, Trapaia, Justa eta Kalari tabernetan, Ogi Eder okindegian, Aizpurua liburudendan, eta Euskadiko Kutzaren bulegoan. Eperik ez du jarri klubak kanpaina amaitzeko, baina izena jartzeko toki mugatua izango du. Bi modulo berezi ipiniko dituzte, ontzi berriaren albo bakoitzean bana. Guztira, nortasun agiriaren neurriko 300 izen jartzeko aukera dago, 150 traineruaren albo bakoitzean.

## Kanpainaren helburua

Zumaiako Arraun Elkarteak arduradunak gogotsu daude ekimenak zer emango duen jakiteko. «Kanpaina berritzailea da, bere garaian Portugaletek egin zuen antzeko zerbit, eta ikusiko dugu nolako erantzuna izaten dugu», azaldu dute klubetik. Egitasmoarekin, azken finean, finantziarioa lortu nahi dute, baina ez hori bakarrik: «Traineru berria erosten laguntzeko kanpaina da, eta baita herritarrengana gerturatzeko ere. Aukera ematen diegu traineruaren parte senti daitezen, beren izena edo enpresarena edo koadrilarena Telmo Deun berrian jarritz». Denboraldiaren amaieran, hitzetik hortzera ibili zen herriko arraunzaleen artean traineru berriaren kontua: «San Miguel ligako kanporaketan aritzeko, San Juanek utzi zigun platanitoo, eta orain, berria eta geurea ekarriko dugunez, herritarrei aukera berezi hori eskaini diegu».

Ez dira garai gozoak arraunean ere. Diru iturriak ixten ari diren garaioan, ekimen berritzaileak sortzeko beharra dago, eta ezin esan zumaiarra ez denik orijinala. Klubaren behar bat baliatuz, herritarrei ontzi berriko kide izateko aukera eskaini die.